

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Legorburu Etxebeste

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1923-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Arrokaundieta baserrian jaioa. Ama Hondarribiakoa zuen eta aita Pasai Donibanekoa. Zortzi senide ziren. Ez ziren etxe jabeak eta artean gaztetxoa zela Eguzkialde baserria egin zuten beherago, Larrabiden, eta hara joan ziren bizitzera. Herriko eskola publikora joan zen Maria Jesus. Baserriko lanetan ibili zen umetatik; bera zen etxeko jostuna. PISBE lantegiko bulegoak garbitzen ere egin zuen lana. Errenteriar batekin ezkondu zen, etxera, eta hiru seme-alaba izan zituzten. [Ramoni](#) ahizparekin batera egindako elkarrizketa. Argazkian ezkerrekoa da Maria Jesus.

Zintak

PAS-011

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-06-07
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

PAS-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-06-07
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Errentan bizitzearen gorabeherak

- **Erref:** PAS-011/003
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Etxean errentan bizi ziren, eta behin amak etxearen teilatua konpontzeko eskatu zion jabeari; hark, ordea, ez zuen konpondu nahi izan, eta gainera errenta igo zien. Gerora, jabea boto eske etorri zitzaien, eta amak ez zion nahi eman izan. Errenta dirutan ematen zuten.</p>

2. Arrokaundietaren egitura eta bizia

- **Erref:** PAS-011/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Baserria zaharra zen: hiru logela zituen eta denak han kabitzen ziren. Gerra garaian, lehengusuak ere etortzen ziren. Etxean mantak eta maindireak beti izaten zituzten. Etxean ez zuten urik eta urrutira joan behar izaten zuten arropa garbitzera.</p>

3. Baserriko lana eta aitaren soldata

- **Erref:** PAS-011/007
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:07:09. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Antxoko moilan egin zuen lan, baina soldatarik gabe gelditu zen ez ziotelako abisatu zer egin behar zuen soldata hura jasotzeko. Baratzetik lortzen zuten jeneroa entregatu egin behar izaten zuten gerra ostean. Errotara astoarekin joaten ziren. Etxean bazuten makina bat garia ehotzeko.</p>

4. Iturrirako bidean izandako komeriak

- **Erref:** PAS-011/009
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Etxean ez zuten urik, eta behorrarekin joaten ziren edateko ur bila. Iturria nahiko urruti zegoen. Behin anaia eta ama joan ziren ur bila, eta elurra hasi zuenez, behorra etzan egin zitzaien; asko kostata altxa zuten.</p>

5. Errekara arropa buru gainean zeramatera

- **Erref:** PAS-011/011
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:12:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Arropak garbitzera erreka joaten ziren. Arropa buru gainean eramaten zuten, burutea jarrita. Burutea nola jartzen zuten azaltzen dute.</p>

6. Lehengo emakumeen bizimodua

- **Erref:** PAS-011/013
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Ama astoarekin joaten zen kalera esnea banatzera. Lehen bizimodua gogorra zen. Gurasoek biek egiten zuten lan kanpoan, baina etxeko lanak amaren ardura izaten ziren. Gaur egungo emakumearen ardurei buruzko iritzia ematen dute.</p>

7. Etxeko koltxoiak, argia eta haizea

- **Erref:** PAS-011/016
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:20:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Etxeko koltxoiak artilez egindakoak ziren; urtero harrotzen zituzten. Etxean argia izateko nola moldatzen ziren azaltzen dute. Etxean beldur handia pasatzen zuten haizearengatik; izan ere, tabikea bota zuen behin.</p>

8. Baserritik kalerako bidea

- **Erref:** PAS-011/025
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Beraien baserritik kalera joateko bide txarrak zeuden, baina beraiek ondo ezagutzen zituzten bideko txokoak. Mezara sartzeko beste oinetako batzuk eramaten zituzten. Euritik babesteko, zakua jartzen zuten gizonak buruan.</p>

9. Ilea ondo zaintzen zuten

- **Erref:** PAS-011/027
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:39:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

<p>Ilea astean behin garbitzen zuten. Eskolan zorriak izan zirenean, Ramonik ez zituen izan. Amak ondo zaintzen zituen seme-alabak. Ramonik San Juanen bainua hartzen zuenean, gero minak izaten zituen ilea orrazteko, eta horregatik ez zuen ikasi igerian. Uretan sartzeko, soineko zaharrak janzten zituzten.</p>

10. Eskolara joaterako, nekatuta

- **Erref:** PAS-011/029
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan zer ikasten zuten azaltzen du Ramonik. Liburuak erabiltzen zituzten. Anaia oso goiz jaikitzen zen ur bila joateko, eta horregatik, eskolara iristerako nekatuta egoten zen.</p>

11. Kilkerrak etxean

- **Erref:** PAS-011/035
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:49:16. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Kilkerrak harrapatzen zituzten umetan, eta gero etxean edukitzen zituzten, poto baten barruan, zuloak eginda.</p>

12. Lanpernak harrapatzeko arriskuak

- **Erref:** PAS-011/036
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:50:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Gizonak lapa eta lanperna bila joaten ziren. Aitaren arreba bat ito egin zen lanperna bila joanda. Lanpernak harrapatzea arriskutsua da edozein tokitan.</p>

13. Emakumeen lana Pysben

- **Erref:** PAS-011/042
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:00:05. **Bukatu:** 01:01:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Pysbetik 9 barku joaten ziren Ternuara. Bakailao hura gazitu eta saldu egiten zen. Bakailaotan emakumeek lana gogor egiten zuten. Emakumeen eta gizonen artean lehiaketa egiten zuten, nork lan gehiago egingo.</p>

14. Etorkinak eta erdara Pasaian

- **Erref:** PAS-011/043
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:01:12. **Bukatu:** 01:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

<p>Pasaian aldaketa handia egon zen, kanpotik jende asko etorri baitzen. "Manchurriano" deitzen zieten etorkinei; batzuek ikasi zuten euskaraz, baina beste batzuek ez. San Juango emakume euskaldunei gustatzen zitzairen erdaraz hitz egitea.</p>

15. Trabajadoreak, "miseria batean"

- **Erref:** PAS-012/002
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:00:09. **Bukatu:** 00:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepublikanoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak: tiroketak, soldaduak baserri inguruetan... Ihesean zebiltzan Lezoko bi mutil Arrokaundietan ezkutatu zirela kontatzen dute. Trabajadoreak Hondarribiko bidea egiten ikusten zituzten, "miseria batean". Baserritarrek behiak zelaira ateratzen zituztenean, trabajadoreak behien errapeetara joaten omen ziren esnea hartzera. Preso zeuden soldadu horiek Jaizkibelgo txabola batzuetan erretiratzen ziren.

16. "Hik sekula ezin den esan espainola haizenik!"

- **Erref:** PAS-012/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gerra ondoren, eskolak erdaraz izaten ziren. Galarazita zegoen euskaraz egitea. Etxean, ordea, euskaraz egiten zuten. Ramonik kontatzen du Juan Joxe anaiak zera esaten ziola: "Hik sekula ezin den esan espainola haizenik!". Legorburutarrak ez ziren politikan mugitzen, baina joera abertzalea zuten.

17. Afal aurretik, arrosarioa

- **Erref:** PAS-012/019
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Afal aurretik, arrosarioa errezatzen zuten etxean. Amak errezzatu ohi zuen, eta familiako beste guztiak inguruan egoten ziren.

18. Hilerokoa, "tabu"

- **Erref:** PAS-012/023
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:25:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Hilerokoa etorri zitzaientean, ez zekiten zer zen. Etxean ez zien gai horri buruzko azalpenik eman. Eskolan azaldu zioten Ramoniri zer zen hilerokoa.

19. Don Enrike medikua

- **Erref:** PAS-012/026
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:28:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

Don Enrike medikuari buruzko azalpenak. Altzakoa zen, eta batetik bestera behorrarekin edota oinez ibiltzen zen. Erditzean laguntzeko, medikua joan ohi zen etxera.

20. Umetatik egur txikitzen

- **Erref:** PAS-012/030
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Umetan, ez zuten panpinarik eduki. Umetatik, etxeko zereginetan lagun behar izaten zuten. Zazpi urterako Ramoni egurra txikitzen aritzen zen, eta Maria Jesusek arropa pilo bat konpondu behar izaten zuen. Etxeko bakoitzak bere eginkizunak izaten zituen.</p>

21. Hiletak

- **Erref:** PAS-012/034
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:35:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Nor bait hiltzen zenean, hilotza bi gau osoz edukitzen zen etxean, eta senide eta auzokoak biltzen ziren hildakoaren alde errezatzeko. Hilkutxa bizkarrean eramaten zen, eta, atzetik joaten ziren senide eta auzokoak. Elizkizunaren ondoren, hilkutxa bizkarrean hartu eta kanposantura eramaten zuten. Gaixo zegoen pertsona hil aurretik, apaiza akolito batekin joaten zen azken igurtzia ematera. Erramua ur bedeinkatutan sartu eta harekin bedeinkatu ohi zuen apaizak hilotza.</p>

22. Maiatzeko loreak

- **Erref:** PAS-012/038
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:37:53. **Bukatu:** 00:38:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Maiatzeko loreetan meza bereziak izaten ziren. Loreak eramaten zitzaizkion orduan Ama Birjinari. Ramonik abesti bat abesten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com